

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

PRACTICUM II-III

GIDA

GUÍA PRACTICUM II-III

Gizarte Hezkuntzako Gradua
Grado en Educación Social

www.ehu.eus

Aurkibidea

1. PRACTICUMAREN PLANTEAMENDU OROKORRA.....	3
2. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN	4
3. II-III PRACTICUMAREN GARAPENA.....	5
4. II-III PRACTICUMAREN KUDEAKETA EGUTEGIA.....	5
5. II-III PRACTICUMAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK.....	6
<u>6.</u> II-III PRACTICUMAREN EBALUAZIOA	12

1. PRACTICUMAREN PLANTEAMENDU OROKORRA

Practicuma funtsezko elementu bat da Gizarteko Hezkuntzako Graduaren ikasketa planean. Helburua da unibertsitatean ikasitakoa zeregin profesionalan txertatzea, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoaren bidez. Horrela, ikasleak hurbildu egiten dira hezkuntza eta gizarte errealitatera, eta errealitate horretan integratzen dira, gerora beren lana izango dena ikusita, ezagututa eta egiaztatuta.

Praktikak egitean, prestakuntzari gehitzen zaizkio garapen profesionalarekin lotutako beste elementu batzuk, hiru ardatzen inguruan: konpromiso etikoa, konpromiso soziala eta konpromiso pedagogikoa.

Practicumak 42 ECTS kreditu ditu guztira (1.050 ordu, ikus 1. taula). Hiru ziklo dira, I, II eta III Practicuma, eta bakoitzak bere kudeaketa egutegia du, lan pertsonala, praktikak egiten diren zentroko jarduera eta fakultateko tutoretza lana antolatzen eta koordinatzen dituena.

1. taula. Practicuma, ikasturteen, moduluen, kredituen eta orduen arabera.

	Ikasturtea	Modulua	Kredituak	Orduak
I PRACTICUMA	3	5	12 ECTS	300h
II PRACTICUMA	4	7	12 ECTS	300h
III PRACTICUMA	4	7	18 ECTS	450h

Practicuma arautzen dute hainbat dekretuk eta arautegik, eta komeni da horiek kontsultatzea zalantzarik izanez gero¹.

Practicumaren jardun eremuek gizarte osoa dute xede, eta arreta berezia jartzen dute gizarte ikuspegitik zaugarriak diren pertsona eta kolektiboetan: haurrak, nerabeak, gazteak, helduak, adinekoak, gutxiengo etnikoak, emakumeak, drogaren mende

¹ [Erabakia, 2019ko uztailaren 24koa](#), Graduak eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoen arautegia onartzeko dena, Gobernu Kontseiluan 2019ko uztailaren 12an onartutakoa; [592/2014 Errege Dekretua](#), uztailaren 11koa; UPV/EHUren Kudeaketa Akademikoko Araudia (IX. kapituluko 72. artikulua) zehazten ditu Graduak Practicumaren oinarritzko alderdiak; eta [Practicumaren Araudi Orokorra](#), Fakultateko Batzarrek 2021eko uztailaren 6an onartua.

dauden pertsonak, dibertsitate funtzionala dutenak, migratzaileak, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak, eta, oro har, komunitate osoa.

Alor horietan guztietan, garrantzitsua da kontuan hartzea lanbidean jarduteko printzipioak ezartzen dituen [kode deontologikoa](#). Helburuak dira:

- 📁 1.- Profesionalki esku hartzea Gizarte Hezkuntzaren testuinguruetan, gizarte hezkuntzarekin lotutako diziplinen oinarri teoriko-praktikoen gainean, kontuan izanik gako etikoak eta deontologia profesionalarenak.
- 📁 2.- Hezkuntza arloko ekintzen erantzukizuna onartzea, nortasun profesionalaren aitortzatik eta gizarte hezitzailearen funtzio profesionaletatik abiatuta.
- 📁 3.- Elkarlanean eraikitzea Gizarte Hezkuntzaren izate eta egite profesionalaren gaineko ezagutza, ikerketaren eta praktikaren analisiaren bidez.
- 📁 4.- Argudio bidez komunikatzea, bai idatziz bai ahoz, gizarte hezitzaileen lan profesionalari buruzko gogoetak, baita hezitzailearen erakundeen kulturari buruzkoak ere.
- 📁 5.- Gizarte-hezkuntza arloko ekintzak gogoeta eginez planifikatzea, garatzea eta ebaluatzea, Gizarte Hezkuntzako eremuetan, erreferentziatzen harturik errealitate zehatz baten diagnostikoaren ondorioak.
- 📁 6.- Hezkuntza proposamenak eta tresnak lantzea hezkuntza eta gizarte arloko prozesuak, testuinguruak eta baliabideak aberastu eta hobetzeko.
- 📁 7.- Lan gaitasuna diziplinarteko eta erakundearteko taldeetan.

2. PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEAN

Practicumari buruzko zalantzarik baduzu, hona jo dezakezu:

- ✓ Praktiken arloko dekanordea Gizarte Hezkuntzako graduan: bhf.practicum@ehu.eus
- ✓ Arloko administrazio arduraduna: bhf.practicum@ehu.eus
- ✓ [Practicumaren koordinatzaileak](#)

3. II-III PRACTICUMAREN GARAPENA

Garrantzitsua da II-III Practicuma sekuentzia gisa ikustea, instruktoreen eta prestakuntza prozesu osoan alboan izango duzun fakultateko tutorearen ardurapeko bi ebaluazio unerekin.

Gizarte Hezkuntzako II-III Practicuma practicum bakartzat hartzen da² eta 30 kreditu ditu: 12 kreditu graduaren azken ikasturtearen lehenengo lauhilekoan, eta 18, bigarren lauhilekoan. 7. moduluaren barruan dago: "Garapen profesionala eta gizarte-hezkuntzako jarduera".

4. II-III PRACTICUMAREN KUDEAKETA EGUTEGIA

Informazio xehea nahi izanez gero erakunde kolaboratzailean praktikak hasteari eta prestakuntza mintegiei buruz, kontsultatu [kudeaketa egutegia](#).

Erakunde kolaboratzailean eginiko egonaldia 150 ordukoa izango da II Practicumean; 320 ordukoa, III Practicumean³. Erakunde kolaboratzailean egin beharreko orduak kalkulatzeko, kontuan hartu dira [fakultatearen egutegia](#), Eusko Jaurlaritzak ezarritako tokiko eta EAEko jaiegunak, eta UPV/EHUren lan egutegian onartutakoak.

Gelditzen den denbora erabiliko da II Practicumaren eta III Practicumaren kudeaketa egutegiko prestakuntza mintegietan, fakultatean eginiko tutoretza mintegietan eta lan autonomoan.

² Ikasleek beren PII-PIII praktikak egiten dituzte erakunde berean, fakultateko tutore berarekin eta erakunde kolaboratzaileko instruktore berarekin.

5. II-III PRACTICUMAREN HELBURUAK ETA EKINTZAK

II Practicumaren helburu nagusia da behatzaile/parte-hartzaile rol batetik abiatzea, praktikak egiten diren lekua bere testuinguruan behar bezala kokatzea, eta era aktiboan eta konprometituan laguntzea zentro kolaboratzaileak agindutako zereginetan. Aldiz, **III Practicumaren helburu nagusia** da gai izatea tutoretza mintegietan azter eta eztabaida daitezkeen gertakari kritikoak sistematizatzeko eta horren bidez ikaskuntza partekatuan oinarritutako prozesu bat burutzeko, xedea izanik zentroarekin adostutako esku-hartze proiektu bat diseinatzea, inplementatzea eta ebaluatzea.

II-III Practicuma lau ekintzatan oinarritzen da⁴:

- 1- Praktikak erakunde kolaboratzailean
- 2- Tutoretza mintegiak
- 3- Prestakuntza mintegiak
- 4- Amaierako memoria

5.1. Lehenengo ekintza: lehen kontaktua erakunde kolaboratzailearekin eta praktikak erakunde horretan

Helburuak

- ✗ Zentro kolaboratzailearekin kontaktatzea
- ✗ II-III Practicumaren egutegia eta ordutegia planifikatzea
- ✗ Gizarte-hezkuntza alorreko erakundeak, programak, proiektuak edo zerbitzuak ezagutzea
- ✗ Gizarte Hezkuntzaren errealitate profesionalera hurbiltzea, gizarte-hezkuntzako praktikaren behaketaren bitartez
- ✗ Praktikan jartzea Gizarte Hezkuntzaren jarduera profesionalarekin lotutako gaitasunak
- ✗ Gizarte-hezkuntzako esku-hartze bat inplementatzea zentro kolaboratzailean

Metodologia

❖ ⁴ **Oharra:** garrantzitsua da ekintza guztiak irakurtzea, ez dutelako ordena kronologikorik.

Hasi aurretik, ikasleek harremanetan jarri behar dute erakunde kolaboratzailearekin.

Praktiken lehenengo egunean, **I. eranskina eta II. eranskina**⁵ entregatu behar dituzte praktikak egingo diren erakunde kolaboratzailean. Practicumari buruzko [dokumentazio guztia](#) fakultatearen web orrialdean eskura daiteke, praktiken atalean-dokumentazioa.

Zentro kolaboratzailean eginiko praktiken lehenengo bi-hiru asteetan, ikasleek beren praktikak planifikatuko dituzte beren prestakuntza prozesuaren parte gisa. Deskargatu egin behar da **III. eranskina** [dokumentazio atalean](#)⁶. Eranskin horrekin batera, ikasleek beren praktikak planifikatuko dituzte, egutegia eta ordutegia zehaztuta. Garrantzitsua da fakultateko tutorearekin finkatzea prestakuntza eta tutoretza mintegiak. Gainera, zehatz-mehatz deskribatu behar dira zentroan bete beharreko zereginak. Ikasleek ez badute nahikoa lekurik prestakuntza proiektuan, beste dokumentu bat erantsi beharko dute, zeregin horiek aipatzeko. Gainera, ikasleek [baimen agiri bat](#) (IV.eranskina) sinatu beharko dute, baldin eta praktikak egingo dituzten zentrotik kanpo aritu behar badute.

Adierazleak⁷: III. eranskina, bateratu egin beharko dira dokumentu bakar batean egutegia, ordutegia, zereginak eta zentro kolaboratzailetik kanpo eginiko irteeren dokumentua, PDFn, eta hiru aldeek sinatu beharko dute (ikaslea, instruktorea eta fakultateko tutorea). Aurkibide batekin eta ordenatuta entregatuko da. Praktiken eta prestakuntza mintegien hasiera eta amaiera finkatzeko, garrantzitsua da [kudeaketa egutegia](#) kontsultatzea eta fakultateko tutorearekin ixtea tutoretza/jarraipen mintegiak.

5.2. Bigarren ekintza: tutoretza mintegiak fakultateko tutorearekin

⁵ Eranskinetako dokumentuak nahitaez bete behar dira, eta ikasleen erantzukizuna da dokumentu horiek entregatzea eta memoriari eranstea. Kalitatea eta irizpide komunak bermatu nahi dituzte, Practicumari behar bezala garatzeko. Dokumentazio guztia amaierako memoriari erantsiko zaio.

⁶ Dokumentazio guztia eskura daiteke fakultatearen web orrialdean, praktiken bannerran.

⁷ Ez da onartuko eskuz idatzitako dokumenturik, pantaila edo irudi argazki bidez eginiko dokumenturik, ezta epez kanpo aurkeztutakorik ere.

Helburuak

- ✘ Prestakuntza proiektua, egutegia eta ordutegia gainbegiratzea
- ✘ Gertakari kritikoak lantzea
- ✘ Ikasleei laguntzea zalantza eta zailtasunetan, erakunde kolaboratzailean egin beharreko gizarte-hezkuntzako esku-hartzea diseinatzean, inplementatzean eta ebaluatzean
- ✘ Banakako eta taldekako tutoretzak egitea

Metodologia

Lan praktikoa osatzeko, jarraipen, gogoeta eta gainbegiratze bilerak egingo dira II-III Practicum osoan zehar. Mintegi eta tutoretza saio horiek fakultatean egingo dira, era presentzialean eta taldean, praktiketako beste ikasle batzuekin eta fakultateko tutorearen gidaritzapean. Tutoretza indibidualak ere egingo dira, III Practicumean eginiko esku-hartzearen diseinuan laguntzeko.

Mintegiak planifikatzea II Practicumean

Lehenengo mintegia⁸ egingo da II Practicuma hasi aurretik. Banaka edo taldeka. Lehen kontaktu hau beharrezkoa da jakiteko ea ikasleak harremanetan jarri diren erakunde kolaboratzailearekin⁹. Gainera, balio du azaltzeko nola egin behar duten prestakuntza proiektua eta bete behar duten dokumentazio osagarria, praktiken lehenengo bi-hiru asteetan. Halaber, lehen hartu-eman hau beharrezkoa da ere ixteko hurrengo tutoretza mintegien datak eta orduak.

Bigarren mintegiaren xedea izango da entregatutako dokumentazioa gainbegiratzea eta ikasleei hari buruzko *feedbacka* ematea, eta erakunde kolaboratzailea testuinguruan kokatzen lagunduko zaie, amaierako memoria behar bezala osatze aldera. Gainera, ikasleek argibideak jasoko dituzte hurrengo mintegirako egin beharreko lanari eta II Practicumaren amaierari buruz. Garrantzitsua da ere ikasleek idatziz jasotzea praktikaldian egokitzen zaizkien egoera kritikoak.

Mintegi hau taldean egiten da. Hala ere, banaka gainbegiratuko da, eta banakako tutoretza saioen bidez berrelikatu, edo eGela plataformaren bidez (banakako tutoretza).

Hirugarren mintegia egingo da II. Practicumaren ebaluazioaren astean (ikus Practicumaren kudeaketa egutegia). Aste horretan, ikasleak ez dira zentrorra joango, eta astebete izango dute gogoeta egiteko beren prozesuari, ahulguneei, indarguneei eta

⁸ Aurreko ekintzan zehazten den bezala

⁹ Harremanetan jarri ez badira, tutore akademikoak lagundu ahal izango die.

erakunde kolaboratzailean esku hartzeko bide posibleei buruz, fakultateko tutorearekin batera, III Practicuma hasi aurretik. Oso aste garrantzitsua da ikasleentzat, lagundu egingo dielako II Practicumean beren prestakuntza prozesua ulertzen eta III Practicumean gertakari kritiko bat edo bi erregistratzen¹⁰, gizarte-hezkuntza alorrean esku hartzeko jarraibide batzuk ezartzeaz gain.

Mintegiak planifikatzea III. Practicumean

Bi mintegi egingo dira taldean III Practicumean, eta banakako tutoretza saio bat, practicum hori amaitu aurretik.

Laugarren mintegia: mintegi irekia eta zabala izango da, taldean, gertakari kritikoak lantzeko, eta praktikaldian ikasi dutena eta izan dituzten zailtasunak aztertzeko. Praktikaldian, fakultateko tutoreak ikasleen gainbegiratze lana egingo du, eGela plataformaren eta banakako tutoretzen bitartez.

Bosgarren mintegia: azkena izango da, diseinatutako esku-hartzeari eskainia. Edozein esku-hartzek hiru aldean onespina izan beharko du.

Banakako tutoretza: esku-hartzearen feedbacka, ebaluazioa, mugak eta amaierako memoria.

* *Gutxienez taldeko 5 mintegi eta banakako 2 tutoretza*

5.3. Hirugarren ekintza: prestakuntza tailerrak fakultatean, praktiketako batzordearen laguntzaz

Helburuak

- ✎ Practicumaren gaitasunen eta ikaskuntza emaitzen testuingurua ezartzen laguntzea ikasleei.
- ✎ II-III Practicumaren lan metodologia aurkeztea: egitura, egin beharreko ekintzak, mintegiak, datak eta entregatu beharreko dokumentazioa.
- ✎ Gizarte Hezkuntzaren rol profesionala ulertzea eta praktika profesionalaren analisi eta gogoeta kritikoa ahalbidetuko duten tresnak ezagutzea.
- ✎ Espektatibak, frustrazioak eta gatazkak lantzea, II-III Practicumaren aurretik eta practicumean zehar.

Metodologia

¹⁰ Egoera kritiko baten erregistroa eta inspirazioa

Tailerrak taldetan banatuko dira (31 eta 01). Tailer bat egingo da II Practicumasi hasi aurretik, eta bigarren tailerra egingo da ebaluazio/prestakuntza astean, II Practicuma zentroan amaitu ondoren eta III Practicuma zentroan hasi aurretik. Azkenik, hirugarren tailerra egingo da martxoan¹¹ (zer egunetan zehazki jakiteko, kontsultatu Practicumaren kudeaketa egutegia). Tailerrak goizez egingo dira.

Frustrazioa, praktika profesionalaren espektatibak, gatazkak eta emozioak landuko dira, kasu praktikoen bidez, gizarte-hezkuntzako esku-hartzean adituak diren pertsonen diseinatutako *role playing* saioen bitartez.

- ❖ **Oharra:** prestakuntza tailer hauek nahitaezkoak dira eta beste [zeharkako gaitasun](#) batzuk lantzen laguntzen dute. Ikasle guztiek tailer hauetan eskatzen dituzten lanak egin beharko dituzte, aurrez aurrekoa ez den ordutegian, eta tutoreari bidali.

5.4. Laugarren ekintza: praktika prozesuaren amaierako memoria

Helburuak

- ✂ Zehatz-mehatz aurkeztea praktikak egin behar diren erakundea eta programa, proiektua edo zerbitzua
- ✂ Gogoeta egitea eta eztabaidatzea gertakari kritikoei buruz
- ✂ Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea idaztea eta ebaluatzea
- ✂ Praktikak egin diren alorrean aurkitu diren mugak eta esku hartzeko egin diren proposamenak aipatzea
- ✂ Gogoeta egitea tailerretan ikasitakoari eta prestakuntza prozesuari buruz.

Amaierako memoria bi txostenek osatzen dute (II-III Practicum). Txosten bakoitzak 20-25 orrialde izango ditu (lehen orrialdea, aurkibidea, erreferentzia bibliografikoak... kenduta), 1,5eko lerroartea eta Times New Roman 12 letra. Lehenengo orrialdean erantsi edo idatzi beharrekoak: goialdean, bi logoak (Hezkuntza Fakultatea eta erakunde kolaboratzailea); erdian, "II Practicumaren txostena edo II-III Practicumaren Amaierako Memoria¹²", gehi ikasturtea eta erakundearen izena; azkenik, behealdean eskuinean, egilea, UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultateko tutorea, gradua eta entrega data (egutegiaren arabera).

¹¹ Zer egunetan zehazki jakiteko, kontsultatu Practicumaren kudeaketa egutegia

¹² Amaierako memorian sartu behar da erakundearen eginiko lan guztia (II-III Practicum). Dokumentazioa erantsi memoriaren amaieran.

3. taula. II-III Practicumaren amaierako memoriaren egitura

AMAIERAKO MEMORIAREN EGITURA	
Entregatu 1-4 atalak II Practicumerako, eranskinekin batera behar izanez gero, eta memoria osoa III Practicumerako, dokumentazioarekin batera, eranskinen atalean	
1. SARRERA	
2. HUBILPEN OROKORRA: PRAKTIKETAKO ERAKUNDEAREN EZAUGARRIAK ETA BALIABIDEAK	
2.1.	Erakundea deskribatzeko datuak
2.2.	Erakundearen jatorria eta bilakaera, sortu zenetik gaur arte
2.3.	Zer arlotan aritzen den zehazki eta finantzaketa
2.4.	Egitura instituzionala (organigrama)
2.5.	Erakundearen jardueraren oinarrian dauden lege esparru nagusiak
3. HURBILPEN XEHEA: PRAKTIKA EGITEN DEN ZERBITZUA, PROIEKTUA EDO PROGRAMA	
3.1.	Helburuak
3.2.	Pertsona hartzaileen profila
3.3.	Talde profesionalaren ezaugarriak eta haren funtzioen definizioa
3.4.	Programako esku-hartzearen metodologia
3.5.	Baliabidearen koordinazioa ingurune komunitarioarekin
4. PRAKTIKAK EGITEN DIREN TESTUINGURUAN AURREIKUSITAKO ESKU-HARTZE PROPOSAMENAK	
4.1.	Erakunde kolaboratzailean detektatutako premiak eta esku hartzeko alternatiba bideragarriak
4.2.	Tailerren ekarpena esku-hartze proposamenei ¹³
5. GIZARTE-HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEA MUGATZEA ETA PREMIAK DETEKTATZEA	
5.1.	Premiak xeheki aztertzea
Atal honetan garrantzitsua da aztertzea detektatutako premiaren unea eta abiapuntuko egoera.	
6. ESKU-HARTZE, DISEINU ETA INPLEMENTAZIO PROIEKTUA	
6.1.	Helburu orokorra eta espezifikoak
6.2.	Metodologia eta jarduerak
6.3.	Kronograma
6.4.	Baliabide materialak eta giza baliabideak
6.5.	Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen ebaluazioa
6.6.	Esku-hartzearen eranskinak
7. II-III PRACTICUMAREN BALORAZIO GLOBALA ETA ARRAZOITUA	
Helburua da praktiken prozesua pentsamendu kritikotik baloratzea	
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	
9. MEMORIAREN ERANSKINAK	
9.1.	Praktiken hasieran entregatutako dokumentazioa

¹³ Erantzuna arrazoitu, ikasgelan landutakoaren eta saioetan egiten dituzuen ekarpenen bidez

6. II-III PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Ebaluatzean, kontuan hartuko da ikasleek eginiko lana, bai fakultatean (tailerrak eta mintegiak fakultateko tutorearekin) bai erakunde kolaboratzailean.

Practicumaren ebaluazio positiboa lortzeko, gainditu egin beharko da bai fakultatean bai praktika zentroan eginiko lana (ikus 4. taula).

4. taula. Haztapena II-III Practicumaren amaierako ebaluazioan

Agente ebaluatzailea	Ebaluazioa	Emandako portzentajea
Fakultateko tutorea	Tutoretza mintegiak Amaierako memoria	% 60***
Erakundeko instruktorea	Ebaluazio errubrika	% 40**
Praktiken Batzordea	Prestakuntza tailerrak	Zereginik ez*

***tutoretza/jarraipen mintegietara **ez joateak** 0.5 puntu kenduko dizkio amaierako notari bertaratu gabeko egun bakoitzeko (gehienez 3 puntu). Mintegiek presentzialak izan behar dute.

erakunde kolaboratzailean eginiko praktiketara **EZ-GAI kalifikazioa duten ikasleek berriro egin beharko dituzte praktikak, dagokion aldirian (berriro matrikulatu beharko dute irakasgai horietan). Hau da, II Practicumerako eta/edo III Practicumerako ezarritako egutegiko hurrengo ikasturtean. Ezin izango dira aurreratu inola ere. Atal honetan GAI izateak ez du irakasgaia gainditzetik salbuesten, atal guztiak gainditu behar direlako.

*prestakuntza tailerretara ez joateak eta tailerretako zereginak ez egiteak 1.5 puntu kenduko dizkiote amaierako notari.

Praktikak ez-gainditzat hartuko dira kasu hauetan:

- Bi aldiz huts baino gehiago egiten bada praktiketara justifikaziorik gabe, ez-gainditzat hartuko da irakasgaia, eta praktikak errepikatu egin beharko dira.
- Erakunde kolaboratzaileko instruktorearen kalifikazioa 5etik beherakoa bada (10etik), ez-gainditzat hartuko da irakasgaia, eta praktikak errepikatu egin beharko dira.

- Zati guztiak bateratu ondoren, fakultateko tutoreak gutxiegi gisa ebaluatzen badu ikasleak eginiko lana, ez-gaindituztat hartuko da irakasgaia. Ikasleak bigarren deialdi batera aurkeztu beharko du (ezohiko deialdia), eta beste memoria bat egin. Kasu honetan, ez badu irakasgaia gainditzen, praktikak errepikatu beharko ditu hurrengo ikasturtean.

***txostenak ez badu hizkuntza eta idazketa akademikoko gutxieneko maila, **EZ-GAI** kalifikatuko da, eta beste amaierako memoria bat aurkeztu beharko da ezohiko deialdira.

Praktikak ez-aurkeztua kalifikazioa jasoko dute kasu hauetan:

Ikaslea irakasgaiari matrikulatu bada ere, praktikak egin behar dituen erakundera ez doanean edo Praktiken Dekanordetzaren baimenik gabe doanean; edo zentro batera doanean, zentro hori eta fakultatean tutore bat esleitu ez badizkiote ere; edota amaierako memoria entregatzen ez denean ohiko deialdian horretarako finkatutako epean.

*****Plagioa**. Plagio susmoak berekin ekar dezake atzera botatzea amaierako memoria eta, ondorioz, Practicuma ez gainditzea. Etika akademikoari buruzko [UPV/EHUren protokoloa](#) aplikatuko da.